

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresak funtziona dezan ezinbestekoak dira funtsezko jarduerak. Jarduerak bi motatakoak izan daitezke, gure enpresaren esku dauden jarduerak eta beste enpresa baten esku dauden jarduerak.



Hasteko, tableta erosi behar dugu, Samsung-ekin harremanetan jarritz. Tableta erosteaz gain, produktua uraren ondorioz ez ondatzeko, zorroak erosi behar ditugu, Carrefour-en bitartez. Tableta dutxan ezartzeko soportea Amazoni erosiko diogu. Gainera, zenbat ur gastatzen dugun ikusteko beharrezkoa da ura kontatzen duen sentso bat izatea, eta sentsoa guri iritsiaraziko digun enpresa Alarmas para Casa izango da. IKEArekin aliantza dugunez, funtsezkoa iruditzen zaigu nahitaezko harremana izatea haiekin, gure produktuaren salmentako zati handi bat haiei esker lortuko baita. Produktu hori bezeroengana iristeko, halabeharrezkoa da WECARGO-ri banaketen informazio guztia eskaintzea. Enpresa bat edukitzeko funtsezkoa da lokal bat izatea. Beraz, Uggasak enpresa berriengan konfiantza transmititzen duenez, beraiek eskaintzen dituzten lokaletako bat alokatuko dugu. Gure lokalerako aulkiak eta mahaiak IKEAn erostea erabaki dugu. Hornitzaile guzti hauekin etengabe kontaktuan egongo dena lker izango da. Arazoren bat izanez gero, berak gestionatuko du. Ikerren lana funtsezkoa da enpresa aurrera eramateko, eta batez ere, materialak eskuratu ahal izateko eta hornitzaileek gertutasuna sentitzeko. Hala ere, kontuan izan behar dugu Ikerrek izugarritzko lana egin behar duela, eta lanez gainezka sentitu daitekela. Horregatik, Mirenek lagunduko dio behar izanez gero. Garrantzitsua iruditzen zaigu taldekide bat gehiago ezartzea lan honetan beharrezkoa bada; izan ere, lan honetan edozerk huts egiten badu, ezin dugu enpresarekin aurrera jarraitu eta produktua lortzeko hurrengo pausoekin ekin.

Aitzitik, tabletaren funtzionamendurako produktu guztiak eskuratu ondoren, tableta programatzea da eginkizuna. Bertan, aplikazio bat diseinatuko da etxeko bakoitzaren kontsumoaren jarraipena egingo duena. Horrez gain, gure produktua erosi ahal izateko eta bezeroak gurekin harremanetan egoteko, ezinbestekoa da webgune bat izatea. Atal honetan behar-beharrezkoa da Ametsen eta Laidaren lana, produktu finala lortzeko eta bezeroek online erosi ahal izateko.

Behin produktua prest edukita, saltzeko garaia iritsi da. Produktu batek arrakasta izan dezan, derrigorrezkoa da produktua publizitatzea eta gure bezeroei iritsiaraztea. Sare sozialen bidez egingo diren iragarkiez arduratuko da Miren. Sare sozialak dira gaur egungo tresna aberasgarrienak zerbait publizitzeko. Produktua

publizitatzea pauso garrantzitsu bat dela uste dugu, produktuaren salmenta areagotzea ezinbestekoa da eta. Salmenten kudeaketaz ere arduratuko da Miren, gure webgunetik egindakoez nahiz IKEAgandik jasotakoez. Garrantzitsua da salmentak kontrolatuta izatea, gure irabazi-iturri garrantzitsuenak direlako eta produktuaren eskaerak kontrolatuta edukitzea ezinbestekoa delako.

Bezeroenganako tratua hobetzeko eta gertuago sentitzeko, funtsezkoa da erosketa ondorengo harremana ondo zaintzea. Horregatik, gure web orriaren atal bat bezeroarentzako laguntzari zuzenduta egongo da, eta hori Amets eta Laida taldekideen ardura izango da. Bertan, gure bezeroek aukera izango dute beraiekin kontaktuan jartzeko eta gailuarekiko dituzten zalantzak edo arazoak aipatzeko. Amets eta Laida arazo horiek ahalik eta modu egoki eta atseginean konpontzen saiatuko dira. Hala ere, hori baino lehen, bideo batzuk prestatuko ditugu arazo komunei irtenbidea bilatzeko, horrela automatizatuagoa izan dadin.